



JANTOKIEN GREBARI BURUZKO INFORMAZIOA

Eskola jantokien greba dela eta, gogoeta hauek helarazi nahi dizkio hezkuntza komunitateari EHIGEk (Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Konfederazioak):

1.- Pasa den ikasturtean izandako grebetan bezala, gure errespetu guztia adierazi nahi diogu eskola jantokietako langileek daukaten greba eskubideari. Hala ere, ikasleek janari zerbitzua kalitate eta segurtasun baldintza minimoetan jasotzeko duten eskubidea ere aldarrikatu nahi dugu. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako gutxieneko zerbitzuak baliogabetu dituen arren EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak, jantoki zerbitzua bermatuko duten gutxieneko zerbitzuak behar direla aldarrikatzen dugu aurreko grebetan bezala. Izan ere gure ustez jantokia funtsezkoa da familia askorentzat.

2.- Aurrekoetan jakinarazi dugun moduan, EHIGE ados dago deialdia egin duten sindikatuekin jantoki zerbitzua hobetuko duten neurriak hartzeko behararekin. Zentzu honetan, Hezkuntza sailarekin hitz egin dugu langileen eskaeren taulan aurreikusitako hobekuntzak onartu ahal izateko. Elkarrizketa hauen ondorioz, 2010-2011 ikasturtean hobekuntza hauek martxan jartzeko akordio baten hastapenera iritsi gara Hezkuntza Sailarekin:

- Langileen ordutegia handitzea beste eginkizun batzuk egin ditzaten: koordinazioa, informeak, familien arreta eta abar. Ikastetxe bakoitzak, bere beharren arabera, erabakiko luke lanaldiaren gehitze hori.
- Ratioak errebisatzea, batez ere aurreneko mailetan.
- Langileen formakuntza moldatzea denborak eta gaiak hobetzeko.

Langileen ordainsaria %5 igotzea dela eta, lan-kontua izanik, gure ustez enpresa eta sindikatuei dagokie.

Jantokiko hezkuntza, antolakuntza eta abarrak hobetu ahal izateko, ados gaude jantokiko kuoten igoerarekin.

EHIGEn ustez, akordio hastapen hau aurreneko pausu bat izan liteke negoziazioa desblokeatzeko. Hori dela eta idazki bat bidali genien pasa den ostegunean inplikaturako alderdiei negoziazioei berriro ekin eta greba deialdia bertan behera uzteko.

Argi dago gure eskaera ez dela aintzat hartu. Hala ere, gatazka hau konpontzeko lanean jarraituko dugu. Ez gaude ados akordioa atzeratuko duten egoera eta jokaerarekin. Izan ere, behin eta berriz ikasleak eta familiak jasaten dituzte euren ardura ez den gatazka baten ondorioak.

Aurreko gobernuari eta honi planteatu diegu jantokiak berraztertze beharra hezkuntza, antolakuntza eta elikadura arloetan. Eman dira aurreneko pausuak negoziazio hori martxan jartzeko. Ikasturte honetan egitea espero dugu.



NOTA INFORMATIVA EN RELACION A LA HUELGA DE COMEDORES

En relación a la huelga de comedores escolares, EHIGE, Confederación de Madres y Padres de la Escuela Pública Vasca, quiere trasladar a la comunidad educativa las siguientes consideraciones:

1.- Al igual que en las jornadas de huelga realizadas a lo largo del curso anterior, manifestamos nuestro absoluto respeto al derecho a la huelga que asiste al colectivo de trabajadores/as de los comedores escolares. No obstante, también queremos reivindicar el derecho que asiste al alumnado a recibir el servicio de comida en unas condiciones mínimas de calidad y seguridad. Es por ello por lo que, a pesar de la anulación por parte del TSJPJ de los servicios mínimos decretados por el Gobierno Vasco, seguimos reivindicando, al igual que en convocatoria de huelgas anteriores, la necesidad de contar con unos servicios mínimos que garanticen la prestación de este servicio, que entendemos es esencial para muchas familias.

2.- Como ya hemos informado en anteriores ocasiones, EHIGE comparte con los sindicatos convocantes de la huelga la necesidad de adoptar medidas tendentes a la mejora de las condiciones en las que se imparte el servicio de comedor. En este sentido entablamos conversaciones con el Departamento de Educación con el objetivo de facilitar un acuerdo que permitiese la adopción de las mejoras contempladas en la tabla reivindicativa de los/as trabajadores. Fruto de estas conversaciones, la pasada semana llegamos a un principio de acuerdo con la administración educativa consistente en la adopción a partir del próximo curso 2010-2011 de las siguientes mejoras:

- un aumento de la jornada de los/as trabajadores/as que posibilite la realización de tareas tales como coordinación, atención e informes a las familias... Este aumento de jornada debería de tener una concreción de los tiempos en cada centro educativo en función de las necesidades.
- revisión de los ratios, principalmente en los primeros años de escolaridad.
- adecuar la formación de los/as trabajadores/as para su mejora tanto en los tiempos como en los temas a impartir.

Respecto a la reivindicación de subida salarial del 5%, y al tratarse de una cuestión estrictamente laboral, entendemos corresponde únicamente a la parte sindical y empresarial su negociación.

Para la mejora de todos los aspectos educativos, organizativos...del comedor, manifestamos nuestro acuerdo a aceptar un pequeño incremento en las cuotas de comedor.

Desde EHIGE valoramos este principio de acuerdo como un primer paso que pudiese posibilitar el desbloqueo de la negociación. De esta forma, el pasado jueves, enviamos un escrito a las partes implicadas, solicitándoles retomar con urgencia las negociaciones con el objetivo de conseguir la desconvocatoria de la huelga e iniciar un nuevo proceso de negociación.

A la vista está que nuestra solicitud no ha sido atendida. A pesar de ello, queremos comunicar a la comunidad educativa nuestra intención de continuar trabajando en la resolución de este conflicto, no estando dispuestos a aceptar actuaciones o situaciones que puedan impedir la consecución de un acuerdo, alargándolo en el tiempo; dado que, una vez más, son el alumnado y sus familias las que han de soportar los perjuicios de un conflicto del que no son, en absoluto, responsables.



Hemos planteado, tanto a este gobierno como al anterior, la necesidad de hacer una revisión completa del tema de comedores en sus aspectos educativos, organizativos y nutricionales, y ya se ha dado el primer paso para que dicha negociación se ponga en marcha. Esperamos que a lo largo de este curso se pueda realizar.